

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Genaro Agirre Mendizabal

*Legazpi,
Gipuzkoa
(1919-2016)*

Aurkibidea



Biografia



Gabiriako Aztiri auzoko Etxetxo baserrian jaioa 1919an, 8 anai-arrebako sendia zuen; aita Lizardikoa zen eta ama Etxetxokoa, biak ere Aztiri auzokoak. 7tik 10 urtera bitartean ibili zen Aztiriko eskolan, eta geroago, 4 hilabetez Gabiriakoan. 16 urte zituela hasi zen gerra, eta orduko bizipenak kontatzen ditu. Patrizio Etxeberria aitaren laguna zen, eta haren lantokian sartu zen militarizatu eta gerratik salbatu nahian; baina, hala ere, instrukzioetan ibili zen Lizarra, Teruel, Katalunia eta Andaluzian, besteak beste.

Zintak

LGA-043

- **Proiektua:** Legazpiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2010-07-08
- **Iraupena:** 79 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Elxpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Maisuarekin izandako kalamitateak

- **Erref:** LGA-043/005
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:08:02. **Bukatu:** 00:10:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

Eskolan non ibili zen azaltzen du. Askotan ezin izaten zuen eskolara joan. Maisua arratsaldetan mozkorra etortzen zen, jo egiten zituen umeak... Behin zigortu eta giltzapean sartu zituen eskola azpiko bodegan; baina ihes egitea lortu zuten, eta maisuak tiro egin zien orduan.

Transkripzioa

-Galdetu nahi nizun eskolan nun ibili zifan.

-Eskolan? Oin e, zuk jbadakizu hemen jatetxea nun daon badakizu goian hemen?

-Aztirin?

-Bai. Jatetxea ba al dakizu nun daon? Hori eskolea zan lehenao. Etxoin pixka-pixkat. Aurreraotik oin soziedadea daon tokin, hue zan eskolea, apaiz etxea eta eskolea bik zeren han. Apaize han bizitzen zan. Eskolea han. Ta guri denboa gutxin ibili nintzen eskolan han. Ibiltzen giñenen ba beti izeten zan, ni nintzen zaharrena. "Gaur ez dek eskolaa juteik, gaur ardik zaittu beharra zeok, gaur ittulara jun beharra zeok, gaur ez zeok eskolaa juteik". Eta juten giñenen ee apaize txiki bat zeon, Oiartzungoa, ta Don Migel zun izena, ta goizen bastante ondo eoten zan baiño atsalden mozkortu itten zan. Tabernaa juten zan, ondon, gertun zeuken ba, ta eanda etortzen zan eta geo joka ta ibiltzen giñutzen. Kristonak eitten [genituen].

-Jo egiten zizuen?

-Buuuu! Mozkor txarra zeukan ba, ta harrapatzen zuna joka ta belarrittik tireka ta ta hola ibiltzen giñutzen. Ta kastigauta... Eskolak azpin zauken bodega bezela, zulo bat, tranpeakin goien eta behean sagardok eta eukitzen zittuen zorun, eta hara sartzen giñutzen barrua! Ta egun baten sartu giñutzen hautza ni ta beste bat, Sarasola apelidua zun, Hipolito, Baztarretxekoa zan eta; ta gur amorrugin, behean lur goorra zeon eta, sagardo [botila puxkatu], ean bate ez, puxkatzen amorrugin. Ta barrenen zeon holako zulo txiki bat, ta "hortik ihes in ber diau". Ta ni lenengo, ni txikixea nitzen bestea baiño ta ni lenengo, haek bultza itten zien ta irten non nik.

-Eta noa irtetzen zon harek?

-Kanpoa! Ihes itteko, etxea ihes itteko. Ta nik irten nun eta, "oin nik nola irtengo diat ba", ta "besotik tira eingo diat". Tireka atea nun hue ta biok etxea ihesi. Ta akordau zen apaiz hori, sukaldeko leihotik: "hor nauk, hor nauk!", daunba!, daunba!, bi tiro.

-Tiroa bota zizuen?

-Bai. Baiño bastante urriñea.

-Eskerrak.

-Gure eskola hola izen zan. Bate ez gendun ikesi, ezerrez.

-Eta han bodega bat zan?

-Eskolean azpin ez zeon ezerre, sagardo botillek bakarrik eoten zien.

-Eta zeinena zen bodega hue?

-Eskoleena, apaizetxeena.

-Apaizan sagardoak izango ziren haiek?

-Bai.

-Gozoa jarriko zan.

-Bera holakoa zan ba, beti ean eitten zon ba.

2. Maisuaren zigorraren ondorioak

- **Erref:** LGA-043/006
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:10:57. **Bukatu:** 00:11:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

Behin maisuak ume bat zigortu nahi izan zuen, eta ika-mika hartan, apaizak mingaina zauritu zuen.

Transkripzioa

-Eun baten hemen beste bizitzan, bat ospizianoa zan, Santi zon izena, ta gurekin batea eskolan hue, ta eun baten kastigau edo zertzeko ta, han zuloan sartu nahi, enda holako tranpea txiki samarra zan ba, ta harek zer eitten zion, hanka sartzen zion eta ezin sartu: "Sartuko haut ba hi!", Oiartzungoa zan apaiz hori, "Sartuko haut ba hi, sartuko haut!", eta hola zebilela jotzen du burukin okotzen eta jata mingaiña ta dana bere hortzakin dana zulau zion apaizari. Hue gora jun zan odola dariola ta [...] ihesi gu. Kitto!
Nahiko errita-saio ibiltzen zenduen ordun.
-Gue eskola hola pasatzen zan, batez, ezerrez. Ez gendun eze ikisi.

3. Gabiriako eskolan, bai, ikasi zuen

- **Erref:** LGA-043/007
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:11:46. **Bukatu:** 00:12:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolan urte pare bat eman zituen Genarok. Geroago, Gabiriako herri-eskolara joan zen, eta han lau hilabete egon zen. Han ikasi omen zuen dakien apurra. Gabiriako eskolako maisua oso gizon ona zen.

Transkripzioa

-Eskolan zenbat urtekin hasi ziñan ba?
-Zortzi urtekin.
-Noiz arte segi zendun?
-Batez, handik aurea ezer ez.
-Zenbat denbora egin zendun eskolan?
-Nik ez dakit zenbat denboa ingo non baiño, ez dakit ba nik. Hamar urte arte edo holakon baten ingo non nik. Eta gero ez zeon, fulamentuik ez zeon eta. Gabirin zeon eskolea herrin, ta han maixue zeon, ta hantxe ibilli nintzen lau hillabeten. Hantxe ikisu non apurra ikisi non, kitto; gaiñetin.
-Eta Gabiriara hortik?
-Oiñez jun behar saltoka, oiñez. Lau kilometro. Ordubete behar ia, oiñez jun eta etorri eunero. Poltsa txiki baten jana hartu ta.
-Goiz ta atsalde eukitzen zenduen eskola?
-Bai.
-Eta han maixua nongoa zenduen?
-Albizturgoa. Oso ona, oso gizon ona gaiñea. Harek erakusten [zuen] apurre, ta kitto. Gue eskolea hala jun zan.

4. Gerratik libratu nahian

- **Erref:** LGA-043/008
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:12:53. **Bukatu:** 00:15:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

16 urte zituela, gerra iritsi zen, eta orduko oroitzapenak gogoan ditu. Patrizioren fabrika militarizatuta zegoen, eta han hasi zen lanean Genaro. Hala ere, egun batean, militarrek etorri ziren eta Genaro soldadu eraman zuten beraiekin.

Transkripzioa

-Eta gero ba hazi in giñen ta ba etxen [nola-hala] eta geo gerra zetorrela, enda hamasei urte, eta hemengo fiestak zien dieciocho de julio, eta ni akordatzen naiz [Bolaketan ordun nintzan] gudarik eo fusil haundikin bolalekuai beira nola egon zien, urdin jantzittakok lau gizon beira. "Hok gerrakok emen dittuk" eta ez dakit zer eta. Hala pasau zan. Eta gero ba fabrikan, Patricion fabrikan laneako, gure aitte zanak ezaune zon hango nausie ta, militarizau itten zittuen ba ordun soldau jun bare libratzeko, nola bonbak eta zerak itten zittuen fabrika hortan, bonban aletak-eta itten zittuen, eta han sartu nittuen fabrikan, enda hasi nintzen eta brazalet bat beson bonba forma ze batekin, eta eun baten esan zian: "Gaur militarra zetorrek ikustea, eta argi ibilli hai" enkargauak esan zian, eta ni mutil gaztetxoa, hamazazpi urte, ta. Halako baten hor datorre, altu bat, militar altu bat. Eta ein [zidan] begiratu bat, begiratu raro bat, eta dioo!, ta alde in zon -ez zian eze esan-, alde in zon, kastillanoa zan eta. "Ño", lagunak esan zian, begiratu txarra ein dik horrek; jun beharko dek". looo! Mutiko...
 -Baina zu han lanean ari bazinen, libre zinen...
 -Lanen ai nitzen, baiño ni beste lan baten ai nintzen, bonbak-eta itten ez, beste lan baten.
 -Horregatik zan, beste lekun batea eamateko...
 -Bai ba. Eta handik zortzin bat egunea ofizinan zebillen bat etorri zitzaian eta segittun bildurtu nintzen, "ba jun beharko dek soldau, hau ta hau..." Mekauen... Tripak honaiño goraiño. Mutikok, mutikok arten. Erderaz ez [genekin] hitzik'e, hemezortzi urte in baek arten. Ta gero esan zian: "Gehio're bazijoaztek, e, hi bakarrik ez hoa, gehienak zijoztek hemendi". Kitto. Hots in ziuén, hartu ta Estellaa.

5. Instrukzioa egitera eraman zuten gerra garaian

- **Erref:** LGA-043/009
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:15:23. **Bukatu:** 00:18:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

16 urte zituela, gerra hasi zen. Genaro instrukzioa ikastera eraman zuten Lizarrara eta Jurramendira. Han zer eta nola ikasi zuten azaltzen du.

Transkripzioa

- Estellara eraman zizuen?
 - Intruzioa ikistea. Ta intruzioa ikisten aritu giñen bi hillebete, pasau giñuzen han. Ta jende asko, e, kuartel txiki baten; ta jana txarra ematen ziguen, oso txarra; ez zeon hango janik jateik; arrak indako babak ematen ziguen, [pentsaizu]. Ta alferez bat bagendun aintzen zona eta geo beste bat zan teniente, Zorrilla esaten ziena. Enda indizioa bizkarreti ematen

ziuen, danei indizioa bizkarreti.

- Zertarako ematen ziuen indizioa?

- Gerra juteko. Nik ez dakit ba ze itteko ematen ziuen, ez gaixotzeko. Enda geo juten giñen instruziotaa zerea, Estellan Montejurra. Montejurra izena zuen mendi batea, han ibiltzen giñen instruziotan. Enda juten zikun ba bokadillokin-eta Estellako emakuma zar bat. "Pinpona" izena zon, "Pinpona" esaten zien, ta haek eamaten zuen sardiñak edo tortillea edo, ta limonada ta, eamaten ziuen eta, dirue puxkat, asko ez genduken baiño gendukena hala ematen giñun.

- Han instruziotan zer egin behar izaten zenduen?

- Han mendin eta? Harrie zeon asko, ta harri bana ematen ziuen, esku-bonbak nola tiratzen zien eta. Harrika ibiltzen giñen. Eta gero ba fusillekin tiroka itten. Holako zer batzuk jartzen zittuen eta harei tiro....

- Zer jartzen zizuen tiro egiteko?

- Papel txuri bat, holako papel txuri bat estaka baten puntan, eta han halako zirko bat zeon hari tiratzeko, eta guk hemen ehizeako afizioa danok genduken ba, ta gehienak txikitzen genitun papelak.

- Eta fusilla nolakoa zan?

- Fusil lehenaoko antigualeko fusille zan. Gera gerratekon kanbiauko zittun baiño ordun intrukzioak itteko antigualeko fusille zan. Luze bat zan, danak igualak zien, zaharrak. Auskalo noizkok izango zien, nik ez dittut ezautzen hak. Gero mosketoiak ekarri zituen, baiño hemen Oviedon-eta itten zittuen mosketoiak. Baiño egur berdekin einddakok eta okerrak eta, ez zuen ondo tiratzen, ez zuen bate balio.

- Fusilla gaiñea egunero ibilli beharko zenduen alden.

- Ez, ez, instruziorako bakarrik ematen ziuen. Aiketa bandera jurau arten.

6. Donostiarako trenean izandako komeriak

- **Erref:** LGA-043/010
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:18:11. **Bukatu:** 00:20:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdota, kontakizunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra hasi zenean, instrukziora eraman zuten Genaro. Banderaren zina egin zutenekoa kontatzen du. Behin Donostiara joan ziren trenez; beraiekin joan zen batek, trena itsasora botako zuten beldurak jota, bere burua bota nahi izan zuen trenetik.

7. Loiolan Lizarran baino askoz hobeto

- **Erref:** LGA-043/011
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:20:28. **Bukatu:** 00:22:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Instrukzioak egiten zebiltzala, Donostiara eraman zituzten. Orduan izan

zuten sarjentua oso ona zen. Lizarran, instrukzioan, zigorraz jotzen zituzten. Zazpi gazte hil ziren han. Donostian, beraz, Loiolako kuartelean, oso gustura egon ziren.</p>

8. Loiolatik Teruel aldera trintxerak egitera

- **Erref:** LGA-043/012
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:22:41. **Bukatu:** 00:24:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Behin, Loiolako kuartelean zeudela, Teruelera bidali zituzten. Han trintxerak egiten aritu ziren.</p>

9. Kataluniako herri batzuen etimologia euskalduna

- **Erref:** LGA-043/013
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:24:44. **Bukatu:** 00:27:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

Terueldik Kataluniara eraman zituzten, Aitona herrira. Kataluniako herri askok euskal izena omen daukate. Bartzelonaren jatorri etimologikoa azaltzen du.

10. Trintxerak egiten zituzteneko giroa

- **Erref:** LGA-043/014
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:27:13. **Bukatu:** 00:30:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Terueldik Kataluniara eraman zituzten, Aitona izeneko herrira. Han trintxerak egiten aritu ziren. Trintxerak nola egiten zituzten azaltzen du. Hala zebiltzala, izarrei begiratzeko ohitura zeukaten. Garai hartan ez zuen euririk egin, eta egarriak egoten ziren. Trintxerak egitean, aurrakako bandokoekin hitz egiten zuten, eta giro ona zegoen bi bandoen artean.

11. Gerran, anekdota graziosoak ere bai

- **Erref:** LGA-043/016
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:32:11. **Bukatu:** 00:33:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerran, trintxerak egiten aritzen ziren, eta sukaldaria galiziarra zuten. Sukaldari harekin izandako anekdota graziosoa kontatzen du.

Transkripzioa

-Egun baten. istori polittek'e badauzket nik.

-Kontatu.

-Oseake, sarjentoa, koziñeroa gendun guk gaillegoa, Sarrieiro zon apellidue, gaillegoa, ta kalboa zan, gu baiño zaharragoa, ta guk genduen "cabo mulero" esaten dana bizkaitarra, ta eun baten tortilla eitten, kanpo libren, holako tejabana zahar bat bezela zeon eta han lastapilla haundi bat eta han lo eitten gendun.

-Kanpamentua bezela?

-Garai baten ba han herritik kanpora lastoa ta eukitzen zittuen ta trilluen eitteko plazueleta haundi bat'e bazeon, lastoa garie jalgitzeko, eta han eta koziñeroa hori ta tortilla itten hori. Ta guk gerrateko garaien ez gendun goseik pasatu, gero etorri zien gosek; ta kalboa zan ta tortilla zeuken, sartaiñean baakizu ta, gora botatzen zon eta goien buelta ematen zun eta hartzen zon. Ta Juan Goikoetxea horrek ein dio bultz tortilla goien daola, goittik beherakon jo du burun, kalbon, buru dana erre dio, sartaiñe eskun dola saltoka, eta bestea gari soron behera ihesi. Ez zon harrapatu. Ta gu parrez. Egun txarrak'e... onak'e pasau [dittugu] guk. Ofizialik eta iñor ez gendun eukitzen eta ez zan ezerre pasatu.

12. Egarria izan, eta ardoa topatu

- **Erref:** LGA-043/018
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:34:08. **Bukatu:** 00:37:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Kataluniako Aitona herrian zeudela, ur bila zebiltzan batean, ardoa aurkitu zuten. Denak mozkor-mozkor egin ziren, eta gerora ardo hori saldu egiten zuten. Gabonetan, dirua zutenez, parranda egitea erabaki zuten; baina, bat-batean, Andaluziara eramán zituztenez, ezin izan zuten asmoa bete.

13. Andaluzian aurkitu zituzten gorpuak

- **Erref:** LGA-043/020
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:39:08. **Bukatu:** 00:41:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- **Politika** » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Andaluzian zeudela, gau batean, gorpu pila bat aurkitu zituzten; gau hartan, trintxerak egin zituzten, eta eguna argitzean, gorpu haiek lurperatu egin zituzten. Gorpuak zer egoeratan zeuden azaltzen du.

14. Andaluziako alanbre-hesiak

- **Erref:** LGA-043/021
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:41:37. **Bukatu:** 00:45:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- **Politika** » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Andaluzian zeudela, gau batean, alanbre-hesiak egin behar izan zituzten, baina aldi berean, aurkako bandokoak kentzen aritu ziren. Alanbre-hesiak nola jartzen zituzten azaltzen du. Eraso egin zieten behin, tiroketa egon zen, baina beraiek salbatu egin ziren.

15. UGTkoek tiro egin zietenekoa

- **Erref:** LGA-043/022
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:45:00. **Bukatu:** 00:47:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- **Politika** » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerran gauez egiten zuten lan, ikus ez zitzaten. Behin, kanpamentura itzultzen ari zirela, UGTkoek tiro egin zieten.

16. Gauez lanean, eta beti egarriak

- **Erref:** LGA-043/023
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:47:06. **Bukatu:** 00:48:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- **Politika** » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Gerran gauez egiten zuten lan, ilunpetan. Ilargiaren argiarekin ondo moldatzen ziren. Baina egarria izaten zuten beti, urik ez inon. Melokotoi-arbolak bazeuden han, eta melokotoi batzuk hartzen zituzten; horrela, egarria asetzen zuten.

17. Bi bandoen artean giro ona gauez

- **Erref:** LGA-043/025
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:49:18. **Bukatu:** 00:53:08

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Gerran gauez egiten zuten lan, eta errekaen beste aldean aurkako bandokoak egoten ziren; elkarren artean hitz egin egiten zuten, eta musika-tresnak jotzen zituzten. Elkarren artean tabakoa eta egunkaria trukatzeko zituzten. Behin tiro egin zioten elkarri gauez, eta bukatutakoan, zenbat hildako egon zituzten galdetu zioten elkarri.

18. Gerraren amaierako kanpaiak

- **Erref:** LGA-043/027
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:54:31. **Bukatu:** 00:55:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Gerra bukatzera zihoala bolo-bolo zebilen, eta egun batean kanpai-hotsek adierazi zuten baietz, gerra bukatu zela. Fabrikara lanera joango balira bezala joaten ziren trintxerak egitera.

Transkripzioa

-Gerra bukatzera zijoala batek konbestazioa, komentarioa ta komentarioa. Ta gau baten herri baten lo. Ta nik mando bat ondón neukan gairia, ta mandon ondón ta mandon gairien junda ta mandon ondo ta ni lo seko ta mandok ez [nindun] hanka azpin hartu, mando [...] ondo-ondón hantxe. Ta kanpai hotsa tin-tin-taun, tin-tin-taun!, ta bukau zala gerrea!

-Ta zertara junda zinen ba mandoa hartuta?

-Mandoa behar izaten gendun ba trastek-eta eamateko. Nee ondón tokau zan mando hori, kanpoko erreja bati lotuta. Enda nee ondón tokau zan.

-Kanpai-hotsa gerra bukatu zala esateko.

-Kanpaiakin akordau gairian eta geo gerrea bukau zala kanpai-hotsakin. Ta, mekauen, gue poza! dedio!, bueno! Ta hartan gerrea bukau zan.

Zuen artean gerraz hitz egiten zenuten? Inork ematen zizuen gerrako notiziarik?

-Ez, ezerrez, ez. Ez zizuen ezeren notiziak ematen guri. Gu, zer esango dizut ba, fabrikea lanea juten dan [bezelaxe] juten gairien gu.

19. Kriminala palio azpian

- **Erref:** LGA-043/028
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:55:52. **Bukatu:** 00:58:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

Francok jende asko fusilatu zuen, baina, hala ere, palio azpian jartzen zen. Gerra garaian ez zuten elkarren artean gerrari buruz hitz egiten.

20. Gerra hasi eta alde egin behar izan zuen jendea

- **Erref:** LGA-043/030
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:01:35. **Bukatu:** 01:03:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra hasieran, jende askok ihes egin zuen herritik. Herriko zenbait gizonak alde egin eta ezkutatuta egon zirenekoa kontatzen du.

21. Línea de la Concepción hirian kontrabandoan

- **Erref:** LGA-043/034
- **Iraupena:** 0:04:29. **Hasi:** 01:08:55. **Bukatu:** 01:13:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra ostean, Sevillako kuartelean, ez zegoen urik; handik Línea de la Concepción hirira eraman zituzten. Han tabakoa pasatzen zuten kontrabandoan mugaren alde batetik bestera.

22. Kontrabandoko tabakoa

- **Erref:** LGA-043/035
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 01:13:24. **Bukatu:** 01:16:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:

Línea de la Concepción herrian tabakoaren kontrabandoa egiten zuten. Tabako hura nolakoa izaten zen azaltzen du.

23. Gerrako janzkera

- **Erref:** LGA-043/037
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:16:55. **Bukatu:** 01:18:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Gerrako janzkera nolakoa izaten zuten azaltzen du.

Transkripzioa

-Gerrako trajia nolakoa zan?

-Kaki esaten zigon. Guardiazibillen kolorekoa ez, hola kaki kolorea, zer esango dizut ba nik. Berdea're ez, kasi marroia bezela, baiño. Marroia're ez, pixkat marroia ta berde antxea eiten don holakoa zan. Kaki kolorea esaten zien.

-Zer zan goikoa eta behekoa, galtzak eta txaketa, alkondara.

-Bai, alkondarea're kaki. Alkondarea, galtzak eta txaketa. Frakak eta...

-Eta botak, militararak?

-Bota militararak, bota beltzak.

-Txapela ibiltzen zenuten?

-Gorroa esaten zikon, hiru puntako gorro bat, puntan txintxilizkako borla bat hola goittik behera gorrie. Gorroa holakoa izaten zan gurea.

-Eta eramaten zenuten brazaleten bat edo?

-Soldauk ez. Kaboak eamaten zuen ze bat, eren fletxea zer dan ezagutzeko, eta ofizialak berriz izarra eamaten zuen. Sarjentook doraue beson, franja dorao bat, eta alferezak izar bat, tenientek bi, kapitanak hiru. Komandantek bat, baiño punta gehiagokoa, ta handik geo teniente-komandantek bi izar, ta koronelak hiru. Hola izeten zien. Baiño izarrak, punta gehiagokin.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-08-24

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com